

**Korrontzi folk taldeak Joaquin Calderonek zuzendutako Basque Selfie pelikularen soinu banda eta gidoia argitaratzen du disko-liburu batean**

*Korrontzi taldeko buru den Agus Barandiaranek ekoiztuta, datorren abenduaren 5etik 9ra Durangon ospatuko den Euskal Liburu eta Disko Azokan aurkeztuko du*

**Korrontzi** folk talde bizkaitarrak luxuzko edizioan edición de lujo, un disco-libro con la banda sonora y aurkeztzen du **Joaquin Calderonek** zuzendutako el guion original de la película **Basque Selfie** de Basque Selfie filmaren soinu banda eta gidoi originala disko-liburu batean. Pelikula, **Arquetipo Comunicación** eta **Agus Barandiaranek** ekoiztuta, **Zinemaldiko** azken edizioan estreinatu zen.

Diskoak 12 tema ditu, bertan **Korrontzi**ren diskografiatik hartutako hamaika kortez gain, filmarako espresuki konposatu eta argitaratu gabeko **Iraun** doinua ere izango du, tema honek **filmaren irudiek in sortutako bideo**klipari musika jarriko diolarik. **Iraun doinuaren musika Agus Barandiaranen obra da.**

**Honako linkean IRAUN tema entzun eta jaitsi daiteke:** <http://www.korrontzi.net/landing/iraun/>

Disko hau, **“Keep Rollin”** (Bilbo, Bizkaia) estudioetan nahastu eta masterizatu du **Cesar Ibarretxe** soinu ingeniariak (2018 urria). Audio edizioa, ekoizpen exekutibo eta management, aldiz, Barandiaranen eskutik datoz.

Korrontziko buruak trikitiak, harrizko eta egurrezko txalapartak eta ahotsa jartzen ditu. Gainera, **Ander Hurtado de Saratxo** txalaparta, handpan, perkusiak eta bateriaz arduratzen da. **Kike Morak** kontrabaxu elektrikoa, baxu elektrikoa eta korduak egiten ditu. Eta **Alberto Rodriguezek** gitarra, mandolina, oktabatutako mandolina eta koruen ardura hartuko du.

Disko honetan grabaketan hainbat musikari gonbidatuk ere parte hartu dute:

- **Xabier Zabala:** Orkestrarako konponketak eta pianoa.
- **Bilboko Orkestra Sinfonikoa.**
- **Xabier Berasaluze “Leturia”:** Pandero.
- **Garikoitz Mendizabal:** Txistu.
- **Michael McGoldrick:** zeharkako flauta.
- **Liron Man:** Handpan.
- **LM Moreno “Pirata”:** Haizeak.
- **Ahotsak Aupa Maurizia! kantuan:** Mikel Markez & Maurizia Aldeiturriaga.
- **Ahotsak Emaioгу Bostekoa kantuan:** Ekintza ikastolako “Txiki” abesbatza, X.B.Leturia & Pirritx eta Porrotx (Aiora Zulaika & Jose Mari Agirretxe).

Liburuxkaren testuak **Agus Barandiaran, Alberto Santana & Izaskun Iturri**k sinatuak dira. Diseinua **Igotz Ziarretaren** obra da. Eta promozioa **Andrés García de la Rivarena**.

**Korrontzi taldeko buru den Agus Barandiaranek ekoiztuta, datorren abenduaren 5etik 9ra Durangon ospatuko den Euskal Liburu eta Disko Azokan aurkeztuko du. Korrontzi folk taldeak Azokan parte hartuko du Artekale 60n kokatutako stand batean.**

**Izaskun Iturri** eta **Joaquín Calderónek** Basque Selfieren gidoia sinatzen dute. Gidoi honen alea, helebidenez idatzita dagoena (euskaraz eta gaztelaniaz), azal gogorrean eta 96 orrialderekin editatuko da.

Joaquín Calderonen **Basque Selfie** pelikula, 2018ko irailaren 21etik 29ra, ospatutako **Donostiako 66. Nazioarteko Zine Jai**ldian **estrenaldi mundiala** izan zuen, euskal zineari eskainitako **Zinemira** sailean, alegia.

**Basque Selfie** benetazko gertakarietan oinarritutako istorio bat da, non Agus Barandiaranen familiaren historia tarte bat kontatzen duen. **Agus Barandiaranek**, mundu osoan euskal musika eta dantza tradizionalaren enbaxadore denak, euskaldun batek izan dezakeen amesgaizto latzenari egin behar dio aurre: bere 1540.eko baserria eraitsi nahi dute, errepide berria egiteko. Agusek gertakariaren aurka jo behar du bere sustraiak babesten saiatzeko. Izan ere, euskal kulturari, lau horma baino askoz ere gehiago da “etxea”. **Basque Selfie** istorio tristea da, baina onbideratzailea, eta tradizioa du ardatzean: norberaren ezaugarriak bizirik mantentzeko tradizioa.

Basque Selfie **Joaquin Calderonek** zuzendu du. **Arquetipo Comunicación** eta **Agus Barandiaranek** ekoiztu dute. Barandiaran, Calderon eta Mintxo Diaz ekoizle exekutiboak dira. **Aritz Gorostiaga** da argazki zuzendaria. **Aitor Unzu** eta **Pablo Blanco**, aldiz, dira muntatzaileak.

Errepartoan Euskal Herriko izen ezagunak topatzen ditugu: Agus Barandiaran, Itziar Ituño (Loreak, La casa de papel), Itziar Aizpuru (El guardián invisible), Kandido Uranga (Amama), Aizpea Goenaga (Yoyes, Obaba), Aitor Merino (Historias del Kronen), Felix Linares, Alberto Santana, Edorta Jiménez, Mikel Belasko, Amaia Madinabeitia, Joaquín Calderón, Sandra Iraizoz, Koldo Martinez Urionabarrenetxea.

Zuzendariak eta obra honen protagonistak 2016ko udan, Iruñeko Harresien Jaialdian Korrontzik eskainitako emanaldi batean ezagutu zuten elkar. Calderonek Iruñeko Udalak eskatuta kontzertuaren bideo labur bat egin zuen, eta harez geroztik bere baserriaren historia kontatzeko aukera sortu zen.

Pelikula **2018ko urtarrila eta maiatza** bitarte grabatu zen **Euskal Herriko hainbat lokalizazioetan:** Iruñea, Atarrabia, Elcano, Arre, Gernika, Durango, Lemoiz, Maruri-Jatabe, Urduliz, Bakio, Mungia, Gatika, Bilbo eta Plentzia.

## CONTACTO KORRONTZI

**Web:** [www.korrontzi.net](http://www.korrontzi.net) t

**Telf.:** (+34) 618 072 076

**Twitter:** [twitter.com/Korrontzi](https://twitter.com/Korrontzi)

**Mail:** [korrontzi@gmail.com](mailto:korrontzi@gmail.com)

**Facebook:** <http://www.facebook.com/Korrontzi-Folk-960901977277922>

## CONTACTO PRENSA

Andrés García de la Riva  
[andresgdelariva@gmail.com](mailto:andresgdelariva@gmail.com)

(+34) 672 376 162



SOINU BANDA / BANDA SONORA / GIDOIA / GUIÓN

KOR  
RON  
TZI